

## DONOSTIAKO ELIZBARRUTIAREN KOMUNIKATUA

Donostiako elizbarrutian inkardinatutako **Juan Cruz Mendizabal Irizar** apaiz jaunari buruz, Hedabideetarako Elizbarrutiko Zerbitzuak honako prentsa adierazpena egiten du:

2016ko martxoan izan zuten Elizbarrutiko Agintariek Mendizabal Irizar apaizaren aurkako salaketaren berri, zehazki, 2001 eta 2005 urteetan bi adintxikikori egindako ukitze desegokiak zirela eta. Ordutik, Fedearen Doktrinarako Erromako Kongregazioarekin harreman estuan eta kasu hauetarako elizak eratua duen lege-protokoloa zehatz jarraituz, Donostiako Elizbarrutiak beharrezko baldintza juridiko material eta auzibidezkoak eratu zituen, alderdikieririk gabe eta zuzentasunez salatutako egintzen egiazkotasuna frogatu ahal izateko, biktimen eta salatutako apaizaren eskubideak behar bezala babesteko eta inplikaturako aldean osotasuna eta izen ona babesteko. Bestalde, bi salatzaileei jakinarazi zitzairen uneoro, nahiz eta salatutakoak alor zibilean preskribatuta egon, eskubidea zutela beharrezko egintza zibilak bidean jartzeko. Aldi berean beraien anonimotasuna babesteko asmoa kontuan hartu zen.

Salatutako egintzen egiazkotasuna frogatu ondoren eta delituaren gauzatzea justiziaz eta zuzentasunez baloratu ondoren, Mendizabal Irizar apaizaren administrazio-prozedura penala akusatuaren erruduntasuna aitortuz burutu zen, honen gain ezarri zirelarik Zuzenbide Kanonikoaren Kodeko 1336-1338 kanonen arabera zigorrak, baita beste neurri administratibo eta disziplinarrak ere.

Erabakia irmoa eta behin-betikoa izanik, Donostiako Elizbarrutiak, bere Artzainaren bidez, guztien ongia orokorrean eta Elizarena era partikularrean babesten jarraitzeko konpromisoa adierazten du. Ardura hau, fededun guztien eskubideak zaindu eta babestean zehazten da, baina era berezian adintxikoen nahiz zaugarriak diren helduen babes juridiko eta pastoraletan (art. 6 §1,1 mpSST).

Bestalde, elizbarrutiko elkarteak, apaizgoaren santutasuna kaltetu eta komunioa sakonki zauritu duten egintza hauek sortutako mina eta lotsa bere gain dituelarik, barkamena eskatzen die guztiei, bere konpromisoa azaltzen du, ahal den neurrian horrelako egintzarik gehiago gerta ez dadin, eta bere gertutasuna adierazten die prozedura penal hau eragin duten egintzengatik sufritzen ari diren guztiei: bereziki biktimei, baina baita Juan Cruz Mendizabal apaizari ere, egindakoengatik bere barrengo damua agertu ondoren eta aipaturako erabakia apaiz espirituz onartu ondoren, gertatutakoaren ordainean lagunduz une honetan prozesu terapeutiko psikologiko eta espirituala egiten ari delarik.

Une honetan, Eliza partikular honek, Pedroren ondorengo den Frantzisko Aita Santuarekin komunioan eta bere Gotzain Jose Ignaziorekin senide bezala bat eginik, ahuldadetik otoitza zuzentzen dio Jaunari, justizia-, errukizko barkamen eta bake-dohainak eskatuz.

Donostian emana, 2017ko urtarrilaren 10ean.